Ordiziako Udala

2022ITGB0013

Ordizian, **2022ko ekainaren 30ean**, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran**, honakoak bertaratu direlarik:

*En Ordizia, siendo el día **30 de junio de 2022** se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*

**BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA**

Adur Ezenarro Agirre

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK**

| | |
|---|---|
| Maitane Alvarez Garziandia | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Jon Ander Caballero Zubelzu | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Miren Alazne Sukia Galparsoro | ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) |
| Bittor Bolinaga Alzelai | EAJ/PNV |
| Iñaki Dubreuil Churruca | PSE-EE (PSOE) |

**BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

Jon Ander Caballero Zubelzu EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)

**IDAZKARIA**

Ainhoa Esnaola Zubeldia

**BESTELAKO BERTARATZEAK ETA FALTA DIRENAK**

**AZTERTUTAKO GAIAK**

**EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

1. 2022ko ekainaren 16a ohiko bilkurako akta onartzea.

2. 2022ko Euskara Saileko dirulaguntzak .
3. Diego-Rivero jabekideak igogailua kota 0 jaisteko obra baimena.

4. Zenbait txosten eta eskaera.
.- GAINDITZErekin hitzarmena.

***ASUNTOS TRATADOS***

***ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:***

*1. Aprobación de acta de la sesión ordinaria de fecha 16 de junio de 2022.*

*2. Subvenciones del area de Euskara 2022ko*
*3. Licencia de obras para la instalación de ascensor en cota 0 en Diego Rivero kalea.*
*4. Informes y solicitudes varias.*
*.- Convenio con GAINDITZE*

.- Ermita inguruan agertu diren txabola baten hondakinak.
.- Planeamendu orokorra.
.- Bizi-lagun baten gaiaiari buruzko eztabaida.
.- Santaneroetan genero bereizketarik ez.
.- Majoriko ostalaritzako langileak.

*.- Restos de una txabola encontrados en el entorno de la ermita.*
*.- Plan general.*
*.- Debate sobre el tema- de una vecina.*
*.- No distinción de géneros en Santaneros.*
*.- Tabajadores de Hostelería de Majori*

5. Galde-eskeak

*5. Ruegos y preguntas*

**PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:**

**ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 13:00etan** **AMAIERA ORDUA: 14:30ean**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**1.- 2022ko ekainaren 16ko bilkurako akta onartzea.**

***1.- Aprobación del acta de la sesión de fecha 16 de junio de 2022***

Proposamena

**2022ko ekainaren 16ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

*Propuesta*

***Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 16 de junio de 2022***

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

**Bozketa**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 5 (EH-BILDU ORDIZIA 2, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**<u>2.- 2022ko Euskara Saileko dirulaguntzak</u>**

***<u>2.- Subvenciones del area de Euskara para 2022</u>***

**TXOSTENA-PROPOSAMENA**

Oinarri hauen xedea da Ordiziako Udaleko Euskara Sailak kudeatzen dituen hainbat programaren kontura ematen diren dirulaguntzen oinarriak arautzea. Dirulaguntza horiek ondoren zehazten direnak izango dira:

-Euskara ikasten edo hobetzen dihardutenei dirulaguntzak.

-Udako euskarazko ikastaroetara joateko dirulaguntzak (UEU, EHU, Hik hasi…)

-Merkataritza, ostalaritza eta enpresa alorrean euskarazko errotuluak, irudi korporatiboa eta webguneak euskaraz jartzeagatik eta udalerriko elkarteek webguneak euskaraz jartzeagatik dirulaguntzak.

-Merkataritza eta ostalaritza alorrean TicketBai fakturazio sistemarako euskarazko softwarea jartzeko dirulaguntzak.

-Aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroa egiteko herritarrei dirulaguntzak ematea eta kirol arloko hezitzaileei berariazko prestakuntza euskaraz jasotzeko dirulaguntzak ematea.

-Udalerriko kirol elkarteei euskarazko formazioa emateagatik dirulaguntzak ematea.

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzetarako Udalaren 2022ko aurrekontuan nahikoa kreditu dago Ordiziako Udaleko kontu-hartzaileak bere txostenean adierazi bezala.

Hori guztia ikusita,

**PROPOSATZEN dut:**

1.- Ordiziako Udaleko Euskara Saileko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onartzea.



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus   www.ordizia.eus

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Maitane: aurten TicketBai fakturazio sistemarako euskarazko softwarea jartzeko dirulaguntzak txertatu ditugu berrikuntza moduan, 250 euro eskuratzeko aukera egongo da.

*Maitane: este año hemos incorporado como novedad las subvenciones para la instalación de software en euskera para el sistema de facturación TicketBai, con la posibilidad de obtener 250 euros.*

Iñaki: ondo egongo zen lanak itzultzeagatik ere dirulaguntzak ematea, izan ere, bermatu behar da Udalak publikazio bat egiten denean hori bi hizkuntzetan egingo dela, esaterako, Trienio Liberalaren publikazioaren kasuan bezala.

*Iñaki: estaría bien que también se concedieran subvenciones para la traducción de trabajos, ya que hay que garantizar que cuando se haga una publicación por parte del Ayuntamiento ésta se hará en los dos idiomas, como es el caso de la publicación de Trienio Liberal.*

Adur: Udalak egingo balu behartuta gaude baina Eusko Jaurlaritzak diruz lagundua izan zen. Oso kasu ez-ohikoa da.

*Adur: si lo hiciera el Ayuntamiento estamos obligados pero fue subvencionado por el Gobierno Vasco. Es un caso muy excepcional.*

Iñaki: Victor Mendizabalek egiten dituen lanak bi hizkuntzatan daude.

*Iñaki: los trabajos que realiza Víctor Mendizabal están en dos idiomas.*

Maitane: komentatuko diogu Maiteri eta aztertuko dugu itzulpenak egiteko aukera.

*Maitane: se lo comentaremos a Maite y analizaremos la posibilidad de realizar traducciones.*

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 5 (EH-BILDU ORDIZIA 2, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

**Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:**


Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

**3.- Diego-Rivero jabekideak igogailua kota 0 jeisteko obra baimena.**

***3.- Licencia de obras para la instalación de ascensor en cota 0 en Diego Rivero kalea.***

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate Jauna gaia aztertzen hasi da. Nolanahi ere, batzordekideak ohartu dira gaia aurreko Tokiko Gobernu Batzorde batean pasa zela. Akatsa egon da. Ez da bozkatu.

*El Sr. Alcalde ha comenzado a tratar el tema. En cualquier caso, los miembros de la comisión se han percatado de que el tema ya había pasado en una Junta de Gobierno Local anterior. Ha habido un error. No se ha votado.*

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**4.- Zenbait txosten eta eskaera.**

***4.- Informes y solicitudes varias.***

Mila: Gainditzenekoekin egon naiz eta jakin nahi dut Hitzarmenaren gaia nola dagoen. Beraiekin bildu behar gara eta Amagoiarekin hitz egin. Esan dit Garazik eskatu duela Tolosako Hitzarmena eta hor gelditu zela gaia.

*Mila: he estado con los de Gainditze y quiero saber cómo está el tema del Convenio. Tenemos que reunirnos con ellos y hablar con Amagoia. Me dice que Garazi ha pedido el Convenio de Tolosa y ahí quedó el tema.*

Maitane: esan berriro Garaziri hitzarmena pasatzeko eta ea gaia nola bideratu dezakegun.

*Maitane: vuelve a decirle a Garazi que pase el convenio y a ver cómo podemos enfocar el tema.*

Eskuairerekin Osoko Bilkuretarako aurrekontu txiki bat egin daiteke eta ondoren Gainditzenekoekin hitzarmena.

*Con Eskuaire se puede elaborar un pequeño presupuesto para los Plenos y después un convenio con los de Gainditze.*

Azkeneko ekitaldietan Amagoia egon zen baina dirurik gabe egiten du lan. Hitz egingo dut Garazirekin eta ea jartzen den gaia martxan.

*En los últimos ejercicios estuvo Amagoia pero trabaja sin dinero. Hablaré con Garazi y a ver si se pone en marcha el tema.*

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Iñaki: akten inguruan, obren delegazioari

*Iñaki: en cuanto a las actas, en cuanto a la*

dagokionean, maiatzaren 25ekoagatik galdetu du.

*delegación de obras, pregunta por la del 25 de mayo.*

Adur: orain dela bi urte gure langileak indusketa lanak egin zituzten eta orain txabola baten hondakinak agertu dira. Orain, hemendik eta festak arte, planinga finkatu behar da. Ermita inguruari eragiten dio.

*Adur: hace dos años nuestros trabajadores realizaron trabajos de excavación y ahora han aparecido los restos de una chabola. Ahora, desde aquí y hasta las fiestas, hay que fijar el planing. Afecta al entorno de la ermita.*

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Iñaki: planeamendu orokorraren gaia nola dagoen galdetu du

*Iñaki: pregunta cómo está el tema del planeamiento general.*

Adur: Aholku Batzordea berriro osatu behar da eta Irismen dokumentua bertatik pasa ondoren irizpide orokorrak Osoko Bilkurak onartu ditzan.

*Adur: hay que volver a constituir el Consejo Asesor y pasar el documento de Alcance para que los criterios generales sean aprobados por el Pleno.*

Pilarrek dokumentu bat egin zuen baina nire iritziz, Ordizia bezalako udal batean nahikoa da 20 orriko dokumentu bat. Bestalde, Oiangualden aldaketa dago izan ere Amenabarrek erosi dio Neinorri eta auzo erresidentzial bat planteatu du. Pilarrek bere garaian txostena egin zuen, gero Osoko Bilkurara joan beharko da gaia.

*Pilar hizo un documento pero yo creo que en un Ayuntamiento como Ordizia basta con un documento de 20 folios. Por otro lado, hay un cambio en Oiangualde, ya que Amenábar ha comprado a Neinor y ha planteado un barrio residencial. Pilar ya hizo informe en su día, luego habrá que ir al Pleno el tema.*

Lierni Aburuza deika ari da eta erabaki behar da aurrera jarraitu edo ez.

*Lierni Aburuza está llamando y hay que decidir si sigue adelante o no.*

Iñaki: nik kontsultatu egin behar dut eta esango dizuet.

*Iñaki: yo tengo que consultarlo y os dire.*

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Adur: K.berriro gaiari bueltak ematen ari da. Berak baldintza batzuk ezarri zituen bilera egiterakoan eta orain idatzizko erantzuna nahi du. Ez zen Osoko Bilkura bat izan eta beraz, ez zen erabakirik hartu.

*Adur: K. vuelve a dar vueltas al tema. Él impuso una serie de condiciones a la hora de celebrar la reunión y ahora quiere una respuesta por escrito. No fue un Pleno, por lo que no se tomó ninguna decisión.*

Mila: nik erantzungo nioke ez zela publikoa izan eta ez zuela idatziz jartzeko eskatu, bestela berriro gaia irekiko du.

*Mila: yo le respondería que no fue público y que no pidió que se pusiera por escrito, porque si no volverá a abrir el tema.*

<u>Bittor</u>: bilera bere gustura egin zen, erantzun zitzaion eta nik ez nioke buelta gehiagorik emango.

*<u>Bittor</u>: la reunión se celebró a su gusto, se le contestó y yo no le daría más vueltas.*

<u>Adur</u>: ados bidaliko dizuet zer daukadan prestatuta eta erabakiko dugu.

*Adur: De acuerdo, ados bidaliko dizuet zer daukadan prestatuta eta erabakiko dugu.*

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

<u>Adur</u>: Kulturatik proposatu dute aurten egotea eta beraz, bikotean emakumea ordiziarra bada, bera izango da dantza egiten duena; eta biak ordiziarrak badira, eureka erabakiko dute.

*<u>Adur</u>: desde Cultura proponen que este año no haya distinción de género en los Santaneros por lo que si en la pareja la mujer es ordiziarra, será ella la que baile; y si ambos son ordiziarras, decidirán por ellos.*

Gaur dago bilera Osoko Bilkuraren ondoren. Guk ondo ikusten dugu gaia. Galdetu digute baita ere ea mezetara joatea behartuta ote dauden.

*Hoy está la reunión después del Pleno. Nosotros vemos bien el tema. También nos preguntan si están obligados a ir a misa.*

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

<u>Adur</u>: bukatzeko Majori eta ostalaritzako langileak. Batetik, Majoriko lizitazioa ez da hutsik gelditu. Enpresa bat aurkeztu da. BPX ez da aurkeztu.

*<u>Adur</u>: para terminar Majori y los trabajadores de la hostelería. Por un lado, la licitación de Majori no ha quedado desierta. Se presenta una empresa. BPX no presentado.*

Zentzu honetan, aurten BPXek ostalaritzako langileekin ez du negoziatzea lortu. Hortik datoz euren kexak. Odilok zerbitzuaren kudeaketaren ardura dauka eta ez du bere gain hartzen

*En este sentido, este año BPX no ha conseguido negociar con los trabajadores de la hostelería. De ahí sus quejas. Odilo es responsable de la gestión del servicio y no lo asume*

Pentsatu beharko da beraz again pertsona bat kontratatzea alderdi hauek eramango dituena.

*Por lo tanto, habrá que pensar en contratar a una persona que lleve estos temas.*

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**<u>5.- Galde-erreguak</u>**

***<u>5.- Ruegos y preguntas.</u>***

Ez dira izan

*No ha habido.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

*Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la Secretaria, certifico.*

| | |
|---|---|
| **Sinatzaileak** Firmantes | **ALKATEAK /** EL ALCALDE<br>Adur Ezenarro Agirre<br>**IDAZKARIA /** LA SECRETARIA<br>Ainhoa Esnaola Zubeldia |
| | **Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:** / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAADNPJP.Mney |

**AINHOA ESNAOLA ZUBELDIA**
**2022/7/21**



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus